

# 1.PIEZA.

## **▣ BALIO PROPOSAMENA**

Gure enpresaren bitartez ludoteka alternatibo bat sortzea dugu helburu. Gure ludotekan, balore desberdinak jorratzea izango dugu xede, proiektu, jolas eta abarrek lagunduz. Bertan monitore espezializatuak izango ditugu, heziketa edo balore horietan adituak eta formakuntza hori emateko prestatuak daudenak.



Gure enpresak ludoteka eredu jarraitu arren, besteeziko desberdintasun anitzak ditu. Ludoteka gehienetan hainbat jolasetara aritzen dira, eskulanak egiten... bai bakarka zein taldeka. Gure ludoteka eredu berri honetan baita, jolasen bitartez, proiektuen bitartez, eskulanen bitartez zein hitzaldi formatiboen bitartez, gaur egungo hainbat gaien formakuntza edo heziketa jorratzea dugu helburu. Gai hoiengan artean hainbat alor ezberdin landuko ditugu gainera, feminismoa, arrazakeria, xenofobia, langileria klasea, klima aldaketa...

Gure proiektua aurrera eramanez ahal izateko, Bilbon, 250 metro karratuko lokal bat alokatu dugu. Hasteko, gure enpresa Bilbon bakarrik kokatuko dugu. Gure helburuenetako bat da, nahi ditugun ideiak martxan jartzea, eta hortik habiatuta ludoteka sortzaile eta berri bat sortzea. Harrakasta handia izan eta gero, pentsatuta daukagu gure ludotekak beste leku batzuetara ere zabaltzea eta irekitzea.

Gure gizartearen gabezi handi bat dagoela konturatu gara faktore desberdinentzat. Hau da, gure gizartearen pentsakera oraindik nahiko itxia dela uste dugu. Horregatik, gure gizartearen inklusioa izateko bidean lagundu nahi dugu, ludoteka eredu berri honen bitartez gure haurrak pentsakera kritiko bat eraikitzen lagunduz.

Kontuan izan behar dugu baita, denbora libreko zerbitzuen barnean, ludoteketatik at, inolako gizarte kompromisorik ez dela lantzen. Horregatik azpimarratu nahi dugu gure enpresa eredu hau nahiko berritzailea dela.



Gure helburua bezeroen beharrak asetzea da, modu arrakastatsu batean, eta pozik egotea eskaintzen ditugun zerbitzuekin.

Gure enpresak eskaitzen dituen gauza guztiak ikusi eta gero, uste dugu oso bideragarria izan daitekela epe labur eta luzera.